

euskararen berripapera 205



EUSKALTERM terminologia-banku publikoa elikatzeko eta eguneratzeko kontratua esleitu da

Iturri **cuento** **mot** **pájaro** **Garó**
source **fuelle** **feu** **Tresna** **fire** **Hodei**
fuego **Sua** **tool** **conte** **nube** **bird**
outil **Hitz** **oiseaux** **tale** **Txori** **cloud**

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da 2001az gero eta, orduetik, doan kontsulta daiteke www.euskadi.net/euskalterm helbidean. Terminologia Banku Publikoa UZEIk 1987an sortutako bankuaren oinarrian eratu zen eta, egun, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) kudeatzen du.

Hizkuntza eroso eta erraz erabiltzeko, baliabide eta tresna egokiak behar-beharrezkoak dira. Bizi diren hizkuntzak etengabe aldatzen dira, eta beraz, hizkuntzaren modernizazio- eta eguneratze-prozesua ez da inoiz amaitzen. Prozesu horrek bi arlo nagusi ditu: sorkuntza eta kontsumoa. Helburu horri jarraituta, azken urteotan EUSKALTERM elikatzeko eta eguneratzeko hainbat kontratu bideratu ditu Eusko Jaurlaritzak. Azken kontratua amaitu zenez, kontratu berria jarri zuen abian HPSk eta 2009ko abuztuaren 12an argitaratu zen iragarkia EHAAn (153 zenb.).

Bankua publikoa denetik, EUSKALTERM mantentzeko lanak HPSk eta IVAPek finantzatzen dituzte, sinatutako hitzarmenen bidez: HPSk %70 eta IVAPek %30. Kontratu berriaren adjudikazioaren prezioa 1.241.200 eurokoa (BEZ barne) izan da eta kontratuko lanak hauek dira:

- Hiztegi berriak egin.
- Bankuko termino zaharrak eguneratu.
- Terminologia Batzordearen erabakiak integratu.
- Informazio-iturriak eta bankuko informazioa kudeatzeko beharrezkoa den informazioa hornitu.

UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroari esleitu zaio 2012ko abenduaren amaiera arte indarrean

egongo den kontratua. Aipatu bezala, EUSKALTERM erabilera publikoko terminologia bankua da, Eusko Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren munita. Euskal terminologiaren normalizazioari eta zabalkundeari ekin eta eusteko, HPS eta IVAP EUSKALTERM etengabe elikatzen eta zabaltzen ari dira, eta lan hori Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planetan jasotako metodologia eta irizpideak jarraituz egiten da. Terminologia Batzordeak gomendatzen duen terminologia, hortaz, EUSKALTERMen kontsultagai dago. Banku Publikoa tresna garrantzitsua da euskarazko terminologia berezitua behar duen edonorentzat. Horren isla da jasotzen duen kontsulta-kopurua, adibidez, aurten, uztailen 600.000 kontsulta inguru jaso zituen ●

Itzultzaileen artean hedatuagoa egon beharko litzateke Euskalterm-ekiko leialtasuna, nork bere bide propioa sortzen ibili gabe. Euskaltermek Euskaltermi buruzko informazio gehiago eman beharko luke, edo jada ematen duena beste modu batean zabaldu. Estetikoki ere komeni da aldatzea noizean behin.

Martin Rezola (Eusko Jaurlaritzako itzultzailea)

Euskarara edo euskaratik itzultzen ari garen itzultzaileok Euskaltermen aurkitu izan dugu terminologiako zalantza askoren erantzuna. Internet bidez kontsultatzeko moduan dagoenez geroztik, gainera, etengabe behar ditugun kontsultak oso erraz eta azkar egiten dira.

Maite Imaz (Eusko Jaurlaritzako itzultzailea)

Euskaltermek eguneratu beharko luke kontsultarako orriaren egitura, itemen itzulpenekin batera datu-biltegi bati loturiko adibidetege erreal bat erantsiz, azken urteotako euskarazko testugintzan agertu diren itzulpen desberdinak eta haien erabilera maiztasuna agertuz, Ereduzko Prosa Gaur orriaren antzeko baliabideak eskaintzeko.

Koldo Biguri (itzultzailea eta EHUKo irakaslea)

Lau lankidetzak-hitzarmen berri

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) lankidetzak-hitzarmenak izenpetu ditu EIZIEekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte), Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekin, Labayru Ikastegiarekin eta Bertsozale Elkartearekin. Orotara, 522.000 euro bideratuko ditu Eusko Jaurlaritzak hitzarmen horien ondorioz.



Euskal
Herriko
Bertsozale
Elkartea



Labayru
Ikastegia



topagunea
euskara elkartearen
federazioa

Literatura Unibertsala. HPSk eta EIZIEk *Literatura Unibertsala* itzulpen-bilduma osatzeko hitzarmena sinatu dute. Kultura Sailak 103.000 euroko diru-laguntza emango dio EIZIERi, literatura unibertsaleko obrak itzultzeko.

Literatura Unibertsala bildumako 145 lan itzuli eta argitaratu dira dagoeneko.

Mintzalaguna. Euskararen erabilera areagotzea da HPSren jardunaren ildo garrantzitsua. Eta erabilera hori esparru ez-formaletan areagotzea lehenasunezkoa da. Hala, **Topaguneak** hainbat lekutan abian jarritako *Mintzalaguna* egitasmoa

zabaltzeko eta era berean, euskara bizitzako gune eta egoera guztietara zabaltzeko bidean lagundu nahi du HPSk.

Mintzalaguna egitasmoak euskal hiztunak eta hitz egiteko trebeziarik eta erraztasunik ez dutenak baten dituzte eta euskara ikasleei euskara esparru ez-formaletan erabiltzeko aukera eskaintzen die. Horregatik, *Mintzalaguna* egitasmoa indartzeko 75.000 euroko ekarpena egin du HPSk.

Labayru Ikastegia. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Labayru Ikastegiak 2008-2011 aldiari dagokion esparru-hitzarmena izenpetu dute. Lau urtez indarrean egongo den hitzarmenean finkatzen diren eginkizunetarako 184.000 euroko laguntza jasoko dute.

Bertsozale Elkarteak. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta HPSk sinatutako lankidetzak-hitzarmenean zehaztu diren kudeaketa, komunikazio, transmisio eta ikerkuntza alorretako lan-ildoak bideratzeko 160.000 euroko diru-laguntza izango du Bertsozale Elkarteak ●

2009ko diru-laguntzen deialdien ebazpena

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ebatzi ditu 2009ko deialdien diru-laguntzak. 2008ko abenduaren 4an diru-laguntzen deialdia egin, eskabide orriak jaso eta aztertu ondoren, HPSk ebazpena egin berri du. Laster batean ekingo zaio ebatzitako diru-laguntzen ordainketari. Honatx, labur adierazita, deialdiz deialdiko emaitzak:

	Diru-laguntza	Diruz lagundutako egitasmoak
Gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko laguntzak (Euskalgintza deialdia)	1.338.999 €	210 egitasmo
Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko laguntzak (Hedabideak deialdia)	5.718.847 €	122 hedabide
Euskara Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT deialdia)	1.625.999 €	150 egitasmo
Toki-entitateetan euskara biziberritzeko deialdia	1.700.000 €	110 toki-entitate
Esparru sozio-ekonomiko pribaturako laguntzak	2.596.053 €	165 enpresaren erabilera-plana eta 11 enpresa berrien planaren diseinua



Juli Palou Sangrá

Nortasun kulturalnitza eta eleanitza eraikitzen


Hizkuntzak helbururen batekin ikasten dira. Gutako bakoitzak, familian erabiltzen dugun hizkuntza, lanekoa, jendaurrekia, etab. ditugu geure baitan. Hau da, hiztunak hizkuntzak bere baitan ditue- nez, beti egongo da hierarkia bat, erabilerari dagokionean.

Hizkuntzak erakusten dituen edonork eremuak zabaldu behar ditu, ikasleak bere hizkuntza-errepertorioari buruz hausnartzeko aukera izan dezan.

Juli Palouk (Bartzelonako Uni- bertsitateko irakaslea) idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak www.euskara.euskadi.net/berripapera web gunean irakur ditzakezue.



Argitalpenak



Euskararen Geografia Historikoa

Labayru
Ikastegia



Europe, vol. 3. The Baltic States, Ireland and Italy. Language Planning & Policy

Kaplan, R., Baldauf Jr, Richard B.



Azterlana

Tots som diferents. Textos normatius de la Unesco sobre diversitat cultural i lingüística.

Askoren artean

Beste zortzi biografia **Bidegileak** bilduman



Duela hogeita bi urte Eusko Jaurlaritzak sortu zuen *Bidegileak* bilduma euskalgintzan aitzindari izan diren gizon-emakumeak ezagutarazteko eta omentzeko.

Harrez geroztik, urtez urte, biografia berriekin aberastuz eta osatuz joan da bilduma. Oraingoan, 55 eta 56 sortak osatu eta argitaratu berri ditu HPSk. Bederatzi idazlek beste zortzi bidegile gehi- goren lana paratu dute.

Lehenengo sortan honako biografia hauek jorratu dira: **Jean Barbier** (1875-1931) (Henri Duhau), **Maria Arizmendi Isasa** (1909-2001) (Arantzazu Zugasti eta Aitziber Salinas), **Estanislao Urruzola Vitoria Uxola** (1909-1986) (Maddi Soroa) eta **Jose Antonio Arkotxa Martija Atxukale** (1911-1996) (Gorka Aulestia). Bigarrenean, berriz, ondorengo bidegile hauek aztertu dira: **Joseba Zubimendi Martiarena** (1897-1939) (Inazio Mujika), **Karmelo Etxenagusia Uribe** (1932-2008) (Igone Etxebarria),

Gotzon Garate Goiartzun (1934-2008) (Miel A. Elustondo) eta **Henrike Knörr Borràs** (1947-2008) (Garikoitz Knörr).

Bi argitalpen horien zabalkundeak bat egingo du bi sortetan jorratutako lau pertsonari egingo zaien omenaldiekin. Honako omenaldi-gorazarre hauek aurreikusi dira: 1) Maria Arizmendi, Urrietako Udalak antolatuta; 2) Estanislao Urruzola *Uxola*, Tolosako Udalak antolatuta; 3) Joseba Zubimendi, Eusko Ikas- kuntzak antolatuta; eta 4) Gotzon Garate, Elgoibarko Izarra kultur elkarteak eta Udalak antolatuta. Aurreko ospakizunen kariatara, tokian tokiko zabalkundea egiteko asmoz, tirada gehigarriak egin dira.

Era berean, aurrerapen gisa, hona hemen **2010ean jorratuko diren biografiak**: Antonio Zabala, J. M. San Sebastian *Latxaga*, Martin Ola- zar, Mikel Laboa, Frantzisko Inazio Lardizabal, Jean Pierre Duvoisin, Emile Larre, Maria Pilar Lasarte, I. Bizkarrondo *Bilintx*, J. F. Petrirena *Xenpelar*, Piarres Ibarrart, Pedro Mari Otaño, Bruno Etxenike, Joseba Altuna eta Mikel Atxaga.

www.euskara.euskadi.net helbidean ikus daitezke *Bidegileak* bildumako biografiak ●



Mikel Atxaga in memoriam



Iragan irailaren 10ean hil zen Donostian Mikel Atxaga idazle, euskaltzale eta bidegilea. 1932an Urnietan jaioa, Donostiako apaizgaitegian ikasketak egin ondoren, apaiz lanetan jardun zen 1974an apaiz izateari utzi zion arte.

Euskal kazetaritzaren historian aldarriz garrantzitsua izan da Mikel Atxaga. 1963an *Zeruko Argia* aldizkarian hasi zen idazten, lehenik kanpotik eta lau urte geroago dedikazio osoarekin. 1978an *Deia* egunkaria sortu eta bertara pasatu zen; hor ere nagusiki euskaraz idazten jarraitu zuen.

Kazetari izateaz gain, idazlea ere izan zen: *Gaztetxo* (1963), *Deiarrak* (1993), *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza* (1998), *Xalbador* (1997) eta abar. Itzultzaile lanak ere egin zituen, adibidez *Mundua guztioi erakutsia* (1968) eta *Ohiturak* (1976).

Etor eta *Gero* argialetxeen kofundatzailea, euskararen munduan kargu desberdinetan egon eta aitorten ugari jaso zituen bere bizitzan, besteak beste ondorengoak: euskaltzain urgazlea, EIZIEko ohorezko bazkidea, Euskararen Aholku Batzordeko kidea eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak argitaratzen duen *Bidegileak* bildumaren zuzendari eta koordinatzailea. Aurtengo apirilaren 1ean jaso zuen azken omenaldia, hain zuzen Eusko Jaurlaritzak eskainia ●

Uzta berria Literatura Unibertsalean



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak EIZIErekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) elkarlanean bideratutako *Literatura Unibertsala* bildumako beste lau lan argitaratu berri dituzte: Karlos Cid Abasolok itzultitako Milan Kunderaren **Izatearen arintasun jasanezina** (142 zenb.), Iker Sanchi Insaustik itzultitako Andrei Platonoven **Lubakia** (143 zenb.), Itziar Otaegik euskaratutako Flannery O'Connor-en **Ez da erraza gizon on bat aurkitzea** (144 zenb.) eta Josu Zabaletak itzultitako Joaquim Maria Machado de Assis-en **On Casmurro** (145 zenb.).

Izatearen arintasun jasanezina eleberraren ardatza izatezko zalantzek inguraturik bizi den bikote baten istorioa da, hainbat gorabeheraren artean, euren maitasun harremanean arintasun, mehetasun halako bat sortzen dela ikusten duten gizon bat eta emakume bat.

Lubakia eleberririk 30 urteko gizon baten istorioa kontatzen du. Lanetik botatzen dute iraultza garaian jarrera pentsakorra susmatzen diotelako. Liburuak Sobietar Batasunaren gizartearen deskribapena egiten du.

Ez da erraza gizon on bat aurkitzea lana, berriz, hamar ipuinek osatzen dute. Istorioak Estatu Batuetako hegoaldean errotuta daude. Gehiegikeriaren eta bortizkeriaren literaturaren adierazgarri diren ipuin harrigarriak dira.

On Casmurro eleberria, brasildar literaturaren goreneko obratzat goraitatua dena, nahiz eta zabalkunde handirik izan ez duen literatura batean sortu izanak ezezagun samar izatera kondenatu duen. Casmurrok bere bizitza kontatzean, hala nahita edo nahi gabe, irakurlearen iritzia manipulatzen eta irakurlea bere konplize bihurtzen ahalegintzen da.

Lau itzulpenak Elkar eta Alberdania argialetxeek plazaratu dituzte elkarlanean ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco